Antsoaingo Udala
Ayuntamiento de Ansoáin

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2025 OTSAILA-FEBRERO / Nº 42. ALEA

# ANTSOAIN



## Urte berri on! ¡Feliz año nuevo!


**Argitaratzailea:** Antsoaingo Udala.
**Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Egilea:** Heda Comunicación, S.L.
**Argazkiak:** Jon Urriza, Irene Idoate.
**Ale kopurua:** 4.700 ale.
**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin.
**Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Realiza:** Heda Comunicación, S.L.
**Fotografías:** Jon Urriza.
**Tirada:** 4.700 ejemplares.
**Difusión gratuita.**
**D.L. - L.G.:** NA 942-2016


**Jantoki komunitarioa: apiriletik aurrera aro berria**

**Nueva etapa del comedor comunitario a partir del mes de abril**

**Kalitatezko bost film emanen dira aurtengo Mendi Astean**

**Cinco proyecciones de calidad en la Semana de Montaña**

**JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES**

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

# 11.928.299 euroko aurrekontua onetsi da

# Aprobado un presupuesto de 11.928.299 euros

% 4,8 igo da aurreko urtearekin alderatuta

Supone un incremento del 4,8 % respecto al ejercicio anterior

Inbertsioen atala nabarmen igo da, 696.369 euro baitira, hots, inbertsioa % 104,81 handiagoa da 2024an baino. Igoerari esker, zuhaitzen inguruko proiektua eta azpiegitura berderako plana gauzatu eta irisgarritasuna nahiz birgaitzea hobetuko dira. Halaber, ibilgailu bat erosiko da udaltzainentzat eta lorategietarako makineria, besteak beste.

### Gastu gehiago gizarte, kultur eta kirol arloan

Gastuen artean, pisu handia dute gizarte, kultur eta kirol arloko gastuek. Horrela, milioi erdi euro baino gehiago bideratu dira proiektu komunitariora eta gizarte zerbitzuetara, eta horien artean, adibidez, "Antsoain, zaintzen duen herria" izeneko ekimena dago. Atal horren baitan nabarmentzekoa da 100.000 euroko partida erabiliko dela jantoki komunitariorako eta, halaber, proiektu berriak izanen dira bai dibertsitate funtzionalean, bai gizarte jarduerak sendotzeko.
Kultur arloan, ia 70.000 euroan handitu da inbertsioa jarduera eta ekitaldietan. Horri esker, hainbat programa finkatuko dira, hala nola jaietako osasun zerbitzua eta kultur dibertsitaterako programa berria. Bestalde, diru gehiago ere izanen dira zeharkako bi alorretarako, hots, Euskara eta Berdintasunerako.
Era berean, 14.000 euro gehiago banatuko dira kolektiboen artean, 35.000 euro gehiago kirol instalazioetan egiturazko inbertsioak egiteko, eta Idakik ere, hau da, kirol jarduerak kudeatzeko ardura duen enpresa publikoak, 2024an baino 70.000 euro gehiago jasoko ditu.
Aurrekontuan, halaber, jasangarritasuna bultzatzeko neurriak jaso dira; adibidez, argiteria publikoa LED teknologia bidez berrituko da. Horri esker, energia gutxiago kontsumitzeaz gain, eremu publikoan segurtasuna hobetuko da generoaren ikuspegitik. Horrez gain, 130.000 eurotik gorako murrizketa espero da energia gastuetan, 2024an egindako lanari esker.

### Diru-sarrerak eta finantzen jasangarritasuna

Diru-sarrera arruntak 11.629.889 euro dira. Horrenbestez, bermatua dago udalaren aurrezpen garbia (492.959 euro) eta aurrekontuen egonkortasuna. Udalak, gainera, bere diru-sarrerak hobetu ditu hainbat arlotan, tasak eta zergak eguneratzeaz gain, kirol instalazio eta jardueren bidezko diru-sarrerak hobetu baitira, eta finkatu egin dira Nafarroako Gobernutik iristen diren transferentzia arruntak (5,7 milioi). Horrenbestez, udalaren finantza ahalmena handiagoa da eta, horri esker, diru gehiago bideratu du inbertsiora.

El capítulo de inversiones crece notablemente, hasta alcanzar los 696.369 euros, un 104,81% más que en 2024. Este aumento permitirá acometer el proyecto de arbolado y el plan de infraestructura verde, mejorar la accesibilidad y rehabilitación o comprar un vehículo para la Policía Municipal y maquinaria de jardines, entre otras acciones.

### Más gasto social, cultural y deportivo

Entre los gastos, tiene gran peso el gasto social, cultural y deportivo. El importe destinado para el proyecto comunitario y servicios sociales, en el que se enmarca el programa "Ansoáin Comunidad que Cuida", supera el medio millón de euros, destacando la partida de 100.000 euros para el comedor comunitario, y nuevos proyectos de diversidad funcional y refuerzo de actividades sociales.
En el ámbito cultural, se incrementa en casi 70.000 euros la inversión en actividades y eventos, lo que permite consolidar programas como el servicio sanitario en fiestas y el nuevo programa de diversidad cultural. Por otro lado, las dos áreas transversales para el municipio, Euskera e Igualdad, también mejoran su presupuesto.
También se incrementa en 14.000 euros la partida de subvenciones a colectivos, se aumenta en 35.000 euros la partida para inversiones estructurales en las instalaciones deportivas, y se destinan a la empresa pública Idaki, encargada de gestionar las actividades deportivas, 70.000 euros más que en 2024.
El presupuesto recoge también medidas enfocadas a la sostenibilidad, como la renovación del alumbrado público con tecnología LED, una acción que no solo reducirá el consumo energético, sino que también mejorará la seguridad en el espacio público desde una perspectiva de género. Además, se prevé una reducción de más de 130.000 euros en gastos energéticos gracias al trabajo desarrollado en 2024.

### Ingresos y sostenibilidad financiera

Los ingresos corrientes ascienden a 11.629.889 euros y permiten garantizar el ahorro neto del Consistorio (492.959 euros) y mantener la estabilidad presupuestaria. La mejora de ingresos propios, fruto de la actualización de tasas e impuestos, de la mejora de los ingresos en instalaciones deportivas y actividades y de la consolidación de transferencias corrientes del Gobierno de Navarra (5,7 millones) refuerzan la capacidad financiera del municipio y han permitido incrementar su capacidad de inversión.

# Jasangarritasuna hobetzeko lehen lanak

# Primeras actuaciones para mejorar la sostenibilidad

Udalak Azpiegitura Berderako Planaren barneko obrak hasi ditu, bai eta Hirigintza Berritzaileko Proiektukoak ere, herria eredu jasangarriago, inklusiboago eta irisgarriagorantz eraldatzeko. Lanen aurrekontua 264.231 euro da eta apirilean bukatuko dira.

Nabarmentzekoa da jendea eta ibilgailuak batera ibiltzeko bide bat sortuko dela Mendikale kalean, Lapurbide eta Noain Anaiak karriken elkargunean, trafikoa murrizteko eta herritarrek segurtasun eta bizi-kalitate handiagoa izan dezaten. Gainera, Noain Anaiak kalearen eta Mendikale kalearen elkargunean jardungo da, bai eta Harrobi kalean ere, bide segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko.

Proiektuak, gainera, korridore berde bat sortu nahi du Argaren Ibai Parkea eta Ezkaba mendia lotzeko, Berriobeiti, Berriozar eta Larrazko karriken bitartez. Lehen fasean, Zelaia parkea Udaletxe plazarekin lotuko duen tartea eginen da; zehazki, drainatze-sistema jasangarriak ezartzeaz gain, eite handiko zuhaitzak landatuko dira itzalguneak sortzeko eta zuhaitzak hobetzeko. Korridore hori proiektuko helmuga nagusietako bat da.

Proiektuaren bidez, halaber, mugikortasuna hobetu nahi da, oinezkoei lehentasuna emanez ibilgailu motordunen aldean, eta eskola-bide seguru bat sortuz, ekipamenduen inguruko eremuak oinezkoendako eremu bihurtzearen bitartez. Era berean, oztopo arkitektonikoak ezabatu eta sarbideetako ibilbideak hobetuko dira, gune berde eta erosoak sortuz herritarrentzat. Noain Anaiak kalean, gainera, ibilgailu motordunentzako erreietako bat kendu, oinezkoendako eremuak zabaldu eta hainbat elementu paratuko dira ibilgailuen abiadura murrizteko.

Aldi berean, hainbat hobekuntza eginen dira Harrobi kaleko bidegurutzean, 31 eta 33 zenbakiko atarien parean. Izan ere, halako jarduketa integral bat egin nahi da, bide-segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, eta ekologia eta jasangarritasuna eremu horren diseinuan txertatzeko.

Azkenik, komun autogarbigarri bat jarriko da Zelaia parkea Lapurbide plazarekin lotzen duen oinezko-pasabidetik hurbil, 57.000 euroko aurrekontua duela.

El Ayuntamiento ha iniciado las obras del Plan de Infraestructura Verde y el Proyecto de Urbanismo Innovador, que tienen como objetivo transformar la localidad hacia un modelo más sostenible, inclusivo y accesible. Los trabajos cuentan con un presupuesto de 264.231 euros y concluirán en abril.

Destaca la creación de una vía de coexistencia entre personas y vehículos en la calle Mendikale, en el encuentro entre las calles Lapurbide y Hermanos Noáin, para reducir el tráfico y favorecer una mayor seguridad y calidad de vida para la ciudadanía. Además, se actuará en el encuentro de la calle Hermanos Noáin con la calle Mendikale y en la calle Canteras para incluir mejoras en la seguridad vial y en la accesibilidad.

Una de las principales metas del proyecto es crear un corredor verde que conecte el Parque Fluvial del Arga con el monte Ezkaba a través de las calles Berrioplano, Berriozar y Larrazko. En esta primera fase se ejecutará el tramo que unirá el parque Zelaia con la Plaza Consistorial, integrando elementos como sistemas de drenaje sostenible, plantación de árboles de gran porte para generar zonas de sombra y mejora del arbolado.

El proyecto también abordará la mejora de la movilidad, dando prioridad al tránsito peatonal sobre el vehículo, y creando un camino escolar seguro mediante la peatonalización de las zonas cercanas a edificios dotacionales. Se eliminarán barreras arquitectónicas y se mejorarán los recorridos de acceso, generando espacios verdes y cómodos para la ciudadanía. Las actuaciones en la calle Hermanos Noáin incluyen la eliminación de uno de los dos carriles rodados y la ampliación de las zonas peatonales, y se introducirán elementos para reducir la velocidad de los vehículos.

En paralelo, se acometerán mejoras en el cruce de la calle Canteras a la altura de los números 31 y 33, con una actuación integral que busca mejorar la seguridad vial y la accesibilidad e integrar la ecología y la sostenibilidad en el diseño de la zona.

Finalmente, se instalará un aseo autolimpiable cerca del paso peatonal que conecta el parque Zelaia con la plaza Lapurbide, con un presupuesto de 57.000 euros.

## Ezagutu Udalaren Gardentasun Ataria / Conoce el Portal de Transparencia del Ayuntamiento

■ Udal webgunearen bidez, Gardentasun Ataria dugu eskura (https://ansoain.es/transparencia). Bertan, Udalaren dokumentuak, datuak eta jarduerak argitaratzen dira. Helburu nagusia da herritarrek aise eskuratu dezatela informazio eguneratua hainbat arloren inguruan: kontratazio publikoa, aurrekontuak, plantilla organikoa, antolamendu instituzionala, goi-karguak eta zuzendaritzako langileak; epeak, mugak eta informazio-eskaerak; kontratazio publikoa eta zerbitzu emakidak; informazio ekonomikoa; hitzarmenak, kontratuak, programak eta diru-laguntzak, etab.

■ A través de la web municipal se puede acceder al Portal de Transparencia (https://ansoain.es/transparencia), donde se publican documentos, datos y actividades del Ayuntamiento. Su objetivo principal es que la ciudadanía acceda fácilmente a información actualizada sobre contratación pública, presupuestos, plantilla orgánica, organización institucional, altos cargos y personal directivo; plazos, límites y solicitudes de información; contratación pública y concesión de servicios; información económica; convenios, contratos, programas, convenios y subvenciones, etc.

## 2025eko zerga egutegia onetsi da / Aprobado el calendario fiscal de 2025

■ Dagoeneko argitaratu da 2025erako udal egutegi fiskala. Zirkulazio-zerga borondatez ordaindu daiteke martxoaren 1etik maiatzaren 5era, eta lurralde-kontribuzioaren lehen seihilekoa, berriz, ekainaren 1etik 5era. Gainerako tasa eta zergetarako, berriz, urriaren 1etik azaroaren 20ra bitarteko epea ezarri da borondatez ordaintzeko (kontribuzioaren bigarren seihilekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergara, pasabideak eta mahai eta aulkien bidezko bide publikoaren okupazioa).

■ Ya se ha publicado el calendario fiscal municipal para este año 2025. El impuesto de circulación puede pagarse de forma voluntaria del 1 de marzo al 5 de mayo, y el primer semestre de la contribución territorial, del 1 al 5 de junio. Para el resto de tasas e impuestos (segundo semestre de la contribución, Impuesto de Actividades Económicas, vados y ocupación de la vía pública con mesas y sillas) se ha fijado el plazo de pago voluntario del 1 de octubre al 20 de noviembre.

## Antsoain buru-belarri DANAk kaltetutako jendearen alde / Ansoáin se vuelca con las zonas afectadas por la DANA

■ DANAk eragindako hondamendiak elkartasun olatua sortu du Antsoainen, eta herritarrek eta zenbait erakundek hainbat ekimen abiarazi dituzte eremu eta jende kaltetuari laguntzeko. Herritarrekin batera, horretan aritu dira Ezkaba Ikastetxe Publikoa, San Cosme eta San Damian parrokia, Attaouhid Komunitate Islamikoa eta Udaltzaingoa. Jardueretako bat, adibidez, Udal Antzokian egindako ongintzazko gala izan da, Gurutze Gorriak, Udalak eta El Charco peñak antolatua, hainbat musika eta dantza taldek eskuzabaltasunez parte hartuta.
Udalaren osoko bilkurak, bestalde, bi adierazpen instituzional onetsi zituen urrian eta azaroan, eremu eta jende kaltetuari elkartasuna agertzeko, eta hildakoen senide eta hurbilkoei doluminak adierazteko. Azaroaren 20ko osoko bilkura berezian, gainera, zinegotziek berariazko udal talde bat sortu zuten Ekitate, Gizarte Ekintza eta Osasun Komunitario Batzordearen barnean, zer baliabide bideratu zehazteko, betiere aurrez kaltetutako toki erakundeekin hitz eginez, zer premia dituzten jakiteko. Horrela, 7.659 euro eman dira Catarrojako Villa Romana ikastetxe publikoko jostalekua berreraikitzen laguntzeko.

■ La tragedia provocada por la DANA de octubre dio lugar a una ola de solidaridad en Ansoáin, donde se pusieron en marcha iniciativas para ayudar a las zonas afectadas tanto de particulares como coordinadas por el Colegio Público Ezkaba, la parroquia San Cosme y San Damián, la Comunidad Islámica Attaouhid o la Policía Local. Una de ellas fue la gala benéfica celebrada en el Teatro municipal, organizada por Cruz Roja, el Ayuntamiento y la Peña El Charco con la participación desinteresada de varios grupos de música y danza.
Por su parte, el Pleno municipal aprobó en octubre y noviembre dos declaraciones institucionales en las que muestra su solidaridad con las zonas afectadas y envía el pésame a las familias y allegados de las personas fallecidas. Además, en el Pleno extraordinario del 20 de noviembre, los representantes políticos crearon un grupo de trabajo específico dentro de la comisión de Equidad, Acción Social y Salud Comunitaria para concretar los recursos que se van a poner a disposición tras consultar a las entidades locales afectadas para conocer sus necesidades. Así, se ha decidido colaborar en el proyecto de reconstrucción del patio del Colegio Público Vil.la Romana de Catarroja con una aportación de 7.659 euros.

## Milaka sari herriko dendetan erosteagatik / Miles de premios por comprar en el comercio local

■ Antsoaingo Udala eta gure herriko Merkatari Elkartea lankidetzan aritu dira azaroan eta abenduan herriko merkataritza sustatzeko kanpainan, "Antsoainek elkartzen zaitu / Ansoáin te une" goiburutzat hartuta. Kanpainaren bidez oroitarazi da zeinen ona den herrian bertan kontsumitzea gizarteari, ingurumenari eta ekonomiari begira, eta halaber zeinen garrantzitsua den hori, herrian bizimodu atsegina eta kalitatezkoa erdiesteko.
Horrela, azaroan sei bideo zabaldu ziren, herriko 20 establezimendutan filmatuak, eta 75.000 ikustaldi lortu dituzte. Gainera, banaketa etxez etxe egin zen. Abenduan, berriz, 20.000 txartel baino gehiago banatu ziren herriko denda, zerbitzu eta ostalaritzako bezeroen artean, eta Udalak eta merkatariek emandako 5.000 sarietako bat irabazteko aukera izan zuten. Oparien artean bazen denetarik, hala nola kirol eta kultur txartelak, gabon saskiak, elikagai deskontuak, jantziak, aisia, eta edertasun eta osasun arloko produktuak, guztiak ere abenduaren 11ko tonbola handian banatuak. Abenduaren 23an, gainera, aire-frijigailu bat zozketatu zen kanpainan parte hartutako guztien artean (argazkian).



■ El Ayuntamiento y la Asociación de Comerciantes de Ansoáin colaboraron durante los meses de noviembre y diciembre en una campaña para promover el comercio local bajo el lema "Atsoainek elkartzen zaitu / Ansoáin te une". En ella se recordaban las ventajas sociales, medioambientales y económicas de consumir de forma local y su importancia a la hora de lograr una vida agradable y de calidad en el pueblo.
Durante el mes de noviembre se difundieron seis vídeos rodados en 20 establecimientos que han logrado más de 75.000 visualizaciones y se realizó un buzoneo en toda la localidad. En diciembre, se repartieron más de 20.000 boletos entre las y los clientes de los comercios, servicios y hostelería local, que pudieron optar a alguno de los 5.000 premios aportados por el Ayuntamiento y comerciantes. Entre los regalos había vales de deporte, vales de cultura, cestas de navidad, descuentos de alimentación, equipación personal, ocio y artículos y servicios de belleza y salud, que se repartieron en una gran tómbola el día 11 de diciembre. Además, el 23 de diciembre se sorteó una freidora de aire entre todas las personas participantes en la campaña (en la foto).

## Plaka fotovoltaikoak paratu dira Idakin eta Ezkaba ikastetxean

Udalak bi eguzki-instalazio fotovoltaiko jarri ditu Ezkaba Ikastetxeko jostalekuko estalkian eta Idakiko frontoian. Biek 198 panel fotovoltaiko dituzte eta 99 KW-ko potentzia. Bertan sortzen den energia kirol instalazioetara bideratzen da nagusiki, bai eta ikastetxera, udaletxera, liburutegira eta haur eskolara ere.

Itzamna Energy enpresak egin du ikastetxeko instalazioa, 69.712,10 euroan (BEZik gabe), eta Idakiko pilotalekuarena, berriz, EDS Ingeniería y Montajes SAU enpresak, 72.145,48 euroan (BEZik gabe).

Bi proiektuek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso dute kostu osoa ordaintzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan.

## Instaladas placas fotovoltaicas en Idaki y el Colegio Ezkaba

El Ayuntamiento ha colocado sendas instalaciones solares fotovoltaicas en la cubierta del patio del Colegio Ezkaba y en el frontón de Idaki. Ambas constan de 198 paneles fotovoltaicos de p99 KW de potencia. Su energía se dirige principalmente a instalaciones deportivas y también al Colegio, Ayuntamiento, Biblioteca y Escuela infantil.

La instalación del colegio ha sido realizada por Itzamna Energy con un coste de 69.712,10 € (IVA excluido), y la del frontón de Idaki la ha llevado a cabo EDS Ingeniería y Montajes SAU por 72.145,48 euros (IVA excluido).

Los dos proyectos han recibido una subvención del Gobierno de Navarra que cubre el total de su coste en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

---

# EUSKARA / EUSKERA

## Euskaraldia eta Euskararen Udaberria bat eginik indarrean eta helburuetan / Euskaraldia y Euskararen Udaberria unen fuerzas y objetivos

Euskararen Udaberria eta Euskaraldia bat eginik etorriko zaizkigu aurten, gure herrian euskararen erabilera 10 egunez sustatzeko. Horrela, maiatzaren 15etik 25era, kultur eta aisia arloko jarduera sorta ederra antolatuko da, euskara ardatz harturik. Urtarrilean, Antsoaingo Euskaraldia Batzordea osatu zen, maiatzean eginen diren proposamenak zehazteko. Edonor izan daiteke batzordekide.

Euskararen Udaberria y Euskaraldia se unen este año para fomentar el uso del euskera durante 10 días en Ansoáin. Del 15 al 25 de mayo se organizarán una gran variedad de actividades culturales y de ocio con el euskera como protagonista. En enero se constituyó la Comisión de Euskaraldia de Ansoáin, en la que quien lo desee puede participar y que será la encargada de concretar las distintas propuestas para realizar en mayo.

---

## Euskarazko kirol jarduerak haur eta helduentzat

Ikasturte honetan, hainbat talde euskarazko kirol jarduerak egiten ari dira. Horrelako taldeak badira futbolean, herri kiroletan, pilotan, igeriketan eta eskaladan, haurrei dagokienez, eta mantentze gimnasian eta yogan, helduen artean. Gehienak gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen dira, baina batzuk euskaraz baizik ez; adibidez, herri kirolak.

## Oferta de actividades deportivas en euskera para público infantil y adulto

Durante este curso varios grupos están realizando actividades deportivas en euskera. Las actividades van desde fútbol o herri kirolak hasta pelota, natación o escalada para público infantil, y gimnasia de mantenimiento o yoga para el público adulto. La mayoría de ellos se ofertan tanto en castellano como en euskera, aunque hay algunos, como herri kirolak, que solo se ofrece en euskera.

---

## Haurrendako hiri tailerrak Eguberrietako oporretan / Talleres urbanos infantiles durante las vacaciones de Navidad

Antsoaingo 30 haur baino gehiago aritu dira pare bat astez eguberrietako oporraldian Loza Kulturgunean, Euskara Zerbitzuak Dindaiarekin batera antolatutako hiri tailerretan. Helburua da haurrak eskola eremutik kanpo euskaraz mintzatzea eta jolastea.

Izan ere, 3-9 urteko haurrek jarduera asko egin dituzte, hala nola eskulanak, jolas tematikoak, etab., aisialdian lagunarteko euskararen erabilera sustatzeko.

Más de 30 niños y niñas de Ansoáin se reunieron durante las dos semanas de vacaciones de las pasadas navidades en el Centro Cultural Loza para participar en los talleres urbanos organizados por el Servicio de Euskera, junto con Dindaia, con el objetivo de que los niños/as puedan comunicarse y jugar en euskera fuera del ámbito educativo. Niños/as de entre 3 y 9 años realizaron diferentes actividades como manualidades, juegos temáticos, etc., que fomentan el uso del euskera coloquial en el tiempo libre.

# Jantoki komunitariorako zerbitzuak aro berriari helduko dio apirilean

# El servicio de comedor comunitario iniciará en abril una nueva etapa

Izena eman beharko da zerbitzuan martxoaren 3tik 14ra eta, apiriletik aurrera, ordainpekoa izanen da

Las inscripciones para este servicio, que a partir de abril será de pago, se llevarán a cabo del 3 al 14 de marzo



Jantoki komunitarioaren proiektu pilotua urriaren 7tik abenduaren 20ra gauzatu zen eta oso emaitza onak izan ditu. Zerbitzua 65 urtetik gorakoentzat eta/edo mendekoentzat antolatu da eta, udazkeneko saialdian, bi eskaintza mota izan dira: batetik, etxez etxekoa, 11 lagunek izena eman dutela; eta Ostoki Zentro Komunitariokoa, beste 40 lagunentzat. Gero, abenduan eta urtarrilean, balorazioak egin dira, elikadurari nahiz alde sozialari begira (elikadura ohiturak, higienea, ordu errutina eta alderdi ekonomikoa), eta emaitzak oso ontzat jo dituzte bai erabiltzaileek, bai proiektuaren arduradunek. Izan ere, proiektu pilotuaren helburu guztiak aurreikusitako egutegian bete dira eta hori funtsezkoa izan da bai zerbitzuari jarraipena emateko, bai hura finkatzeko faseari ekite aldera, gobernu taldeak halaxe erabakita.

Esan behar behin betiko zerbitzua abian jarri arte, proiektu pilotuaren baldintza berberak mantenduko direla, hau da, izena emanda dauden 51 lagunek doan jasoko dute zerbitzua, orain arte bezala. Haietako batek baja hartuko balu urte hasierako hilabeteotan, itxaron zerrendara joko litzateke, baina ez da aukerarik izanen izena emateko.

Egungo faseak, beraz, apirilaren 16ra arte iraunen du eta, une horretatik aurrera, zerbitzu ordaindua eskainiko da. Interesdunek martxoaren 3tik 14ra eman beharko dute izena Lapurbide Zentroan, 10:00etatik 13:00etara; ahal bada, aurrez hitzordua eskatuz. Honatx aurkeztu beharreko dokumentazioa: nortasun agiria, desgaitasun eta/edo mendekotasun ziurtagiria, dieta berezien gaineko txostena (behar izanez gero) eta 2023. urteko errenta aitorpena.

Informazio hori guztia, bai eta bestelakoa ere (kuotak, leku kopurua, etab.,) otsailetik aitzina egonen da eskura udalaren webgunean (www.ansoain.es).



El proyecto piloto de comedor comunitario que se puso en marcha del 7 de octubre al 20 de diciembre de 2024 ha obtenido muy buenos resultados. El servicio, dirigido a personas mayores de 65 años y/o con discapacidad, se ha ofertado en dos modalidades: a domicilio, con 11 personas inscritas; y en el Centro Comunitario Ostoki, donde se ha dado servicio a otras 40 personas. A lo largo del mes de diciembre y enero se han llevado a cabo las valoraciones tanto a nivel alimenticio como a nivel social (hábitos alimentarios, higiene, rutina horaria y parte económica), y las valoraciones de los resultados han sido muy positivas tanto por parte de las y los usuarios como por parte de las personas responsables del proyecto. Conseguir todos los objetivos planteados al proyecto piloto dentro del calendario previsto ha sido clave para tomar la decisión definitiva por parte del equipo de gobierno de continuar y pasar a la fase de afianzamiento del proyecto.

Hasta la puesta en marcha del servicio de comedor comunitario se van a mantener las mismas condiciones del proyecto piloto, es decir, las 51 personas inscritas seguirán beneficiándose de este servicio de manera gratuita. Si alguna de ellas se diera de baja en estos primeros meses de año se recurrirá a la lista de espera, pero no se abrirán nuevas inscripciones.

Esta fase se prolongará hasta el 16 de abril y, a partir de ese momento se ofertará el servicio de pago. Las inscripciones de las personas interesadas se llevarán a cabo del 3 al 14 de marzo en el Centro Lapurbide en horario de 10:00 a 13:00 horas, a ser posible bajo cita previa. La documentación a aportar será: D.N.I., certificado de discapacidad y/o dependencia, informe de dietas especiales (si fuese necesario) y la declaración de la renta del año 2023.

Toda esta información y más (cuotas, número de plazas,etc.) estará disponible a partir del mes de febrero en la página web municipal (www.ansoain.es).

# Sexu heziketako tailerrak DBHko ikasleentzat

# Talleres de educación sexual para alumnado de Secundaria

Harrobik hainbat tailer eman ditu urtarrilean Iñaki Ochoa de Olza institutuko DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen artean, dinamiken eta solasaldien bidez hainbat eduki lantzeko, guztiak ere generoaren, sexualitatearen, tratu onen, zaintzen, etab. inguruan. Saioen bidez gune seguru bat sortu nahi izan dute, gazteak beren kezkei eta gaiei buruz lasai mintzatzeko eta zalantzak argitzeko bai sexualitatearen bai harreman-ereduen inguruan, eta halaber, oinarrizko kontzeptuak lantzeko, dela indarkeriaren prebentzioaz, dela desberdintasunaz, etab.

Durante el mes de enero Harrobi ha impartido diferentes talleres al alumnado de 3º y 4º de ESO del Instituto Iñaki Ochoa de Olza. en los que se han trabajado contenidos en torno al género, sexualidad, buenos tratos, cuidado, etc. a través de dinámicas y charlas. El objetivo de estas sesiones es crear un espacio seguro donde la juventud pueda resolver sus inquietudes y preocupaciones en torno a la sexualidad, modelos de relaciones y construir conceptos básicos sobre prevención de violencia, desigualdad, etc.

## Harrobiko gazteak Olentzero eta Maridomingiren bidelagun / La juventud de Harrobi acompaña a Olentzero y Maridomingi



■ Gaztehandi taldeko gazteek funtsezko eginkizuna izan dute Eguberrietako ekitaldien antolaketan. Esate baterako, Maridomingiri harrera egiteko ekitaldian parte hartu zuten abenduaren 15ean eta, Olentzeroren eta Maridomingiren segizioan, abenduaren 24an. Abenduaren 15ean txokolate-jana prestatu eta zerbitzatzeaz arduratu ziren, eta buru-belarri ere aritu ziren bizkotxoen dastaketan. Abenduaren 24an, bestalde, Ezkaba ikastetxeko jostalekua marrazkien bidez apaindu, suziak eraman eta jan-edatekoak banatu zituzten. Azken buruan, laguntza ederra eman zuten herritarrek Olentzerori ongietorria emateko. Gaztetxiki taldeak, gainera, kalejiran ere lagundu zuen, suziak eramanez eta orgatik janari-edaria banatuz.

■ Los y las jóvenes del grupo Gaztehandi han desempeñado un papel fundamental en la organización de los eventos navideños, como el recibimiento a Maridomingi del 15 de diciembre y el desfile de Olentzero y Maridomingi la tarde del día 24. El 15 de diciembre se encargaron de preparar y servir la chocolatada, además de participar activamente en la degustación popular de bizcochos. Por otra parte, el 24 de diciembre decoraron el patio del Colegio Ezkaba con dibujos, portaron antorchas y repartieron comida y bebida, contribuyendo así a que todo el pueblo pudiera disfrutar del recibimiento al Olentzero. Además, el grupo Gaztetxiki también colaboró durante la kalejira portando antorchas y repartiendo comida y bebida desde la carroza.



# Antzerkia, zine-foruma eta ipuin-kontalaria M-8a ospatzeko

# Teatro, cinefórum y cuentacuentos para celebrar el 8-M

Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu ditu martxorako, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko, martxoaren 8a, alegia.
Aurreko urteetan bezala, antzerkiak bere lekua izanen du egitarauan, aurten bi proposamenen bidez: "Akelarre", Virginia Imazen eskutik, martxoaren 14ko 19:00etan taularatuko dena; eta "Manólogo", Irantzu Varelaren eskutik, martxoaren 21eko 19:30ean emanen dena. Bi antzezpenak Antsoaingo Antzokian eginen dira. Gainera, zine-forum saio bat antolatu da, María Castejónek zuzendua, martxoaren 7rako, 19:00etan hasita, Antsoaingo Antzokian ere bai. Azkenik, ipuin-kontalari bat arituko da euskaraz Liburutegi Publikoan, martxoaren 12an, 17:30etik aurrera, Jaione Urtasunek "Pontxarekin denok berdin" izeneko saioa emanen baitu.



El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Ansoáin ha organizado varias actividades a lo largo del mes de marzo para conmemorar el Día Internacional de la Mujer, que se celebra cada año el 8 de marzo.
Al igual que en años anteriores, la programación reservará un espacio para el teatro con dos propuestas: "Akelarre", con Virginia Imaz, que se representará el 14 de marzo a las 19:00 horas; y "Manólogo", de Irantzu Varela, prevista para el 21 de marzo a las 19:30 horas. Ambas representaciones tendrán lugar en el Teatro de Ansoáin.
Además, se ha organizado una sesión de cinefórum dirigida por María Castejón el 7 de marzo a las 19 horas también en el teatro de Ansoáin; y se ha programado una sesión de cuentacuentos en euskera en la Biblioteca Pública el 12 de marzo a las 17:30 horas a cargo de Jaione Urtasun y titulada "Pontxarekin denok berdin".

## Esparru digitaleko indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza

Gure herrian emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko II. toki protokoloa abian jarri zenetik, Antsoaingo Udalak prestakuntza ikastaro bat antolatzen du urtero Koordinazio Mahaiko kideentzat. Mahaia propio eratu baitzen Protokoloa eraginkortasunez gauzatzeko eta hainbat zerbitzu eta erakunde dira kide: Udaleko Berdintasun Zerbitzua eta Udaltzaingo Zerbitzua, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Iruñerriko eta ipar eremuko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko taldea, eta Antsoaingo Osasun Etxea eta Osasun Mentaleko Zentroa.
Aurtengo gaia esparru digitaleko indarkeria matxista izanen da. Ikastaroa Eraikiz Kolektiboak emanen du otsailaren 21etik 28ra.

## Nueva formación sobre violencia machista en el ámbito digital

Desde la puesta en marcha en 2020 del II Protocolo Local para la Coordinación de la Actuación ante la Violencia Contra las Mujeres en Ansoáin, el Ayuntamiento de Ansoáin organiza anualmente un curso de formación dirigido a la Mesa de Coordinación creada para dar operatividad al Protocolo y compuesta por el Servicio de Igualdad y el Servicio de Policía Municipal del Ayuntamiento, la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berriozar, Berrioplano, Iza y Juslapeña, el equipo de Atención Integral a Víctimas de la Violencia de Género de Comarca de Pamplona y Zona Norte, el Centro de Salud y el Centro de Salud Mental de Ansoáin.
Este año la formación abordará la violencia machista en el ámbito digital. El curso será impartido por Eraikiz Kolektiboa y tendrá lugar del 21 al 28 de febrero.

# "Ezagutu eta zaindu zure pelbis zorua" tailerrerako izen-ematea, otsailaren 17tik 28ra

# Las inscripciones para el taller "Conoce y cuida tu suelo pélvico", del 17 al 28 de febrero

Heldu den martxoko astelehenetan emanen da "Ezagutu eta zaindu zure pelbis zorua" tailerra, hau da, hilaren 10ean, 17an, 24an eta 31n, arratsaldeko ordutegian, Lidón Sorianoren eskutik. Hainbat teknika baliatuz, emaileak erakutsiko digu nola izan harreman atsegin eta osasuntsua gure gorputzarekin. Tailerraren prezioa 20 euro da eta otsailaren 17tik 28ra bitarte eman beharko da izena, 012 infolokal telefonoan (948 012 012).




El taller "Conoce y cuida tu suelo pélvico" se impartirá los lunes 10, 17, 24 y 31 del próximo mes de marzo en horario de tarde y las sesiones correrán a cargo de Lidón Soriano, quien, a través de varias técnicas, nos ayudará a establecer una relación amable y sana con el cuerpo.
El taller tiene un precio de 20 euros y las inscripciones permanecerán abiertas del 17 al 28 de febrero en el teléfono Infolocal 012 (948 012 012).

## Lehen hilerokoen gaineko tailerraren arrakasta / Éxito del taller de primeras menstruaciones

Eva Rosinok emanik, urtarril osoan egin da lehen hilerokoei buruzko tailerra Harrobin eta arrakasta handia izan du. Adinaren araberako bi talde osatu ziren: batean, DBHko 1. mailako neska-mutilak bildurik, eta, bestean, DBHko 2. maiako neska-mutilekin. Saioak urtarrilaren 9an, 16an, 23an eta 30ean egin ziren, 17:00etatik 18:30era.



El taller de primeras menstruaciones que ha impartido Eva Rosino durante todo el mes de enero en Harrobi ha sido un éxito. Se formaron dos grupos divididos por edades: uno con chicos y chicas de 1º de Secundaria, y un segundo con chicos y chicas de 2º de Secundaria. Las sesiones tuvieron lugar los días 9, 16, 23 y 30 de enero de 17:00 a 18:30 horas.






# Carlos Gurrutxaga, lan komunitarioari eskainitako bizitza

# Carlos Gurrutxaga, una vida dedicada a la labor comunitaria

38 urtean aritu eta gero, erretiroa hartu du Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko psikologoak. Joan den azaroaren 20an, zehazki. Azken asteotan, Carlos Gurrutxagak ikusi du ez dela alferrekoa izan berak egindako lan komunitarioa, berak artatutako pertsona asko joan baitzaizkio besarkada bana ematera eta eskerrak ematera. Haren lankideek ere esker oneko hitzak izan dituzte, Carlosen lana aintzat hartuz eta miretsiz. “Maitasunezko keinu horiek pentsarazi didate zerbait ongi egin dudala. Egia da esku-hartze zailak izan ditudala eta porroten bat edo beste ere bizi izan dudala, baina ontzat jotzen dut nire ibilbidea. Beti izan dut zuzeneko harremana familiekin eta gazteekin, nire babesa agertzeko”.

Carlos 1986an hasi zen psikologo lana egiten, orduko Antsoaingo Zendean. Ez ziren garai gozoak, gazte aunitz heroinaren menpean baitzeuden. Drogen Plan Nazionala abian jartzearen ondorioz, udalek lanpostu bat sortu zuten prebentzioa lantzeko. Deialdi horri esker, Carlos Antsoaingo Gizarte Zerbitzuetan hasi zen lanean. “Gizarte hezitzaile bat, gizarte langile bat eta psikologo bat ginen. Gure eginkizuna zen familiek zer behar zituzten bildu eta atzematea, eta gero, landa lana egitea”. Zuzeneko harremana funtsezkoa zen prebentzioa egiteko. “Gazteekin, seme-alaba toxikomanoen amekin, espetxean egondako drogazaleekin eta ikasleekin aritu ginen lanean, eta materiala eramaten genien autoestimuaz, prebentzioaz, portaeraz eta pertsonen arteko harremanez”.

Drogamenpekotasun Planen ondorioz, aldaketak iritsi ziren. Gizarte Zerbitzuak mankomunatu eta lau alorretan banatu ziren. Carlosi Haurrak eta Familia programa egokitu zitzaion, eta aurrerantzean, nerabeen arazoak izan zituen ardatz, bai eta alkohol eta kalamuaren kontsumo goiztiarra eta pertsonen arteko harremanak ere. Aitortzen du oraindik ere indarrean daudela Gizarte Zerbitzuen eginkizunari buruzko topiko batzuk: “Familia batzuk defentsiban jartzen dira, haien artean desadostasunak daudelako, eta beren arazoak haiek berek moldatzea nahiago dute; beste batzuk, berriz, laguntza onartu eta ohartzen dira arreta psikosozialak haien ongizate emozionala hobetzen duela”.

Bizitza osoa besteen zerbitzuan aritu ondoren, familiaz, bidaiez eta zinemaz gozatzeko tenorea iritsi zaio.




El que fuera psicólogo de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Iza y Juslapeña durante 38 años se jubiló el pasado 20 de noviembre. Las últimas semanas de Carlos Gurrutxaga le han servido para comprobar que la labor comunitaria que ha desempeñado no ha caído en saco roto y muchas personas a las que atendió se han acercado para darle un abrazo y agradecerle su trabajo. También sus compañeras/os han tenido palabras de reconocimiento y admiración. “Las muestras de cariño me han hecho pensar que algo he hecho bien. Es verdad que he tenido intervenciones difíciles y he vivido algún que otro fracaso, pero valoro positivamente mi trayectoria. Siempre he mantenido un contacto directo con las familias y la juventud para apoyarles”.

